

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>haraindi</b>	...erdi suntsitutako sabaiaren zuloaz <b>haraindi</b> izarrak ikusten ziren.
<b>errainu</b>	Dunari ere argi egiten zion ilbeteak, itzal eta <b>errainu</b> bitxiak sortaraziz.
<b>xume</b>	Nahi izanez gero, bazeukan orain oasisa itzultzerik, Fatimarekin ezkontzerik eta artzain <b>xume</b> gisa bizitzerik
<b>gurari</b>	Edozein <b>gurari</b> duzula ere, hemen naukazu hori betearazteko prest.
<b>bidaide</b>	<b>Bidaidearengana</b> hurbildu zuen bere zaldia mutilak.
<b>gogaiturik</b>	<b>Gogaiturik</b> zeukan monjea gerrak.
<b>fereka</b>	Eta, halako batean, justu ehizakiaren <b>ferekak</b> nire harearen gainean sentitzeko zorian nintzenean...
<b>herrestari</b>	Mendian zeuden han urrunean, haitzak, dunak, landare <b>herrestariak</b> ...
<b>hiltzeaz</b>	—Eta zertarako beharko zenuke hori guztia <b>hiltzeaz</b> bazeunde?
<b>tiara</b>	Urdinez jantzitako gerlariak ziren, eta <b>tiara</b> beltz bana zeramaten beren durbanteen gainean.
<b>kuraia</b>	...ardiak utzi eta alde egiteko izan zuen <b>kuraia</b> ...
<b>ganbara pipiak jo</b>	— <b>Ganbara pipiak jotzen</b> hasita al zaude?
<b>miatu</b>	—Zuek <b>miatu</b> beharra daukagu, armarik badaramazuen jakitearren...
<b>emeki</b>	Beraz, gero eta <b>emekiago</b> hitz egiten dugu guk bihotzok...
<b>martingala</b>	Haren trikimailu eta <b>martingalez</b> jabetu zen eta, azkenik, zen bezalakoxea onartu zuen.
<b>trikimailu</b>	Haren <b>trikimailu</b> eta martingalez jabetu zen eta, azkenik, zen bezalakoxea onartu zuen.
<b>gogobeterik</b>	Beste batzuetan aski <b>gogobeterik</b> zegoela esaten zion mutilari...
<b>bermatu</b>	Mundu hau existitze hutsak <b>bermatzen</b> du badela nonbait hau baino mundu perfektuagorik..
<b>eden</b>	Naja motako sugea zen, eta haren <b>edenak</b> minutu gutxiren buruan akabatzen zuen edonor.
<b>supituki</b>	<b>Supituki</b> , geratu egin zen, eta kontu handiz makurtu zen.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>zohardura</b>	Ilargitzarra zeruan eta arroken <b>zohardura</b> (...) besterik ez zen antzematen.
<b>txanbil</b>	<b>Txanbil</b> bat ireki eta kolore gorriko edari bat isuri zuen Alkimistak mutilaren edalontzian.
<b>hilotz</b>	Ordu erdiren buruan laurehun eta laurogeita hemeretzi <b>hilotz</b> zeuden lurrean.
<b>usta</b>	Lehenxego ezpatari eutsi zion esku berberak <b>usta</b> hartu zuen oraingoan.
<b>dunbots</b>	<b>Dunbotsa</b> entzun zuen batbatean, eta izugarrizko haizeerauntsi batek lurrera bota zuen.
<b>jalki</b>	...hautsa <b>jalkitzen</b> hasi zenean ordura arte inoiz sentitu gabeko izua nabaritu zuen...
<b>mako</b>	Zelari itsatsia zekarren zorrotik kanpora atera zuen bere ezpatatzar <b>makoa</b> ...
<b>hitzarmen</b>	Oasi barruan inork ezin duela armarik eraman soinean dioen <b>hitzarmena</b> hautsi egingo dugu bihar.
<b>soinean</b>	Oasi barruan inork ezin duela armarik eraman <b>soinean</b> dioen hitzarmena hautsi egingo dugu bihar.
<b>mehar</b>	Behi gizen eta <b>meharrei</b> buruz faraoiak izan zuen amets hari esker...
<b>ezpurua</b>	Sufre <b>ezpurua</b> bereizi beharra daukat.
<b>marmario</b>	Neskaren ahotsa entzuten zuen mutilak, eta datilondoan hostoetan haizeak eragiten zuen <b>marmarioa</b> baino ederragoa iruditzen zitzaion.
<b>djin</b>	Munduko sekretuak dakizkien gizona da. Basamortuko <b>djinekin</b> hitz egiten du.
<b>bertsuko</b>	Honengandik urruti zegoen mutila, bere adin <b>bertsuko</b> beste bost gazterekin karpa berean jarri baitzuten.
<b>abegi</b>	Leku hoberenak utziko zizkieten karabanako kideei, hala agintzen baitzuen <b>abegi</b> onaren legeak.
<b>zaildu</b>	Ez zuen ezagutzen, artean, gizon hura, baina bere begi <b>zailduek</b> ikusi orduko ezagutuko zuten.
<b>ikastun</b>	Oraingoan ere aurreko <b>ikastuna</b> bezain trebea izatea espero zuen.
<b>erruz</b>	...gauza horiek sekretuak zirelako, <b>erruz</b> azaltzen baitzizkien Jaungoikoak bere sekretuak izaki guztiei.
<b>antzeman</b>	Esplikazio bakarra <b>antzematen</b> zion jokabide hari...
<b>araztu</b>	Bitzita osoa laborategietan metalak <b>arazten</b> eman zuten gizonak ziren alkimistak.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>jaregin</b>	Uste zuten metala urte luzez egosten edukiz gero, <b>jaregin</b> egingo zituela bereberek zituen propietateak...
<b>arras</b>	Txunditurik utzi zuen ingelesa dendaren inguruko kontakizunak, mutila bertaratzuz geroztik negozioa <b>arras</b> hobetu izanak alegia.
<b>arrimu</b>	Elkarren <b>arrimura</b> biltzen ziren batzuetan karabanak, gauean.
<b>datil</b>	...bazekien jendeak zer iragartzen zuen: emakumeak, ura, palmondoak eta <b>datilak</b> .
<b>argizagi</b>	Oztopoak gainditutakoan, beti jartzen zen karabanaren branka oasirako bidea erakusten zuen <b>argizagiari</b> begira.
<b>branka</b>	Oztopoak gainditutakoan, beti jartzen zen karabanaren <b>branka</b> oasirako bidea erakusten zuen argizagiari begira.
<b>zotz egin</b>	Gidariren bat gaixorik jartzen edo hiltzen bazen, <b>zotz eginez</b> hautatzen zuten gameluzainek haren ordeztiko gidaria.
<b>branka</b>	Oztopoak gainditutakoan, beti jartzen zen karabanaren <b>branka</b> oasirako bidea erakusten zuen argizagiari begira.
<b>dagoeneko</b>	<b>Dagoeneko</b> beste artzain bati ohituak izango dira, eta ahaztu egingo ninduten.
<b>itzulmin</b>	"Ez dira jada nire ardiak", esan zion bere buruari, <b>itzulminik</b> sentitu gabe,
<b>apo</b>	Basamortuan, ordea, betiereko haizea, isiltasuna eta animalien <b>apoen</b> hotsa, ez zegoen besterik.
<b>iskanbila</b>	...egun hartan dena zen <b>iskanbila</b> eta oihera, haur eta negar, animalien irrintzi...
<b>harrabots</b>	Zin-egite hutsak iraun ohi duena baino gehiago luzatu zen <b>harrabotsa</b> , zeruari babes eske otoika ere ari baitzen jendea.
<b>birritan</b>	Kate haren eraginez egin zen artzain, <b>birritan</b> izan zuen amets bera...
<b>apetatsu</b>	Emakume <b>apetatsua</b> baita basamortua, eta batzuetan zoratu egiten ditu gizonak.
<b>espingarda</b>	...baita gerrian ezpatak eta bizkarrean <b>espingardak</b> zeramatzaten hainbat gizon ere.
<b>burrunba</b>	Ikaragarritzko jende- <b>burrunba</b> zegoen aretoan...
<b>nondik norako</b>	—Egipton dago Al-Fayoum —erantzun zuen nagusiak—. <b>Nondik norako</b> arabiarra zara zu?
<b>aintzatetsi</b>	Mundu osoan inork aintzatesten ez zuen erregea artzainek onartu eta <b>aintzatetsi</b> zuten beste inork baino lehenago.
<b>zalantzati</b>	Artean ere <b>zalantzati</b> zebilen bere erabakia zela eta.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>diosal egin</b>	Gazte arabiar bat –maletaz kargatua hura ere– sartu zen ingelesa zegoen leku hartara eta <b>diosal egin</b> zion.
<b>basamortu</b>	Gogoratu berria zuen Merkatariaren hornitzaileetako batek <b>basamortua</b> zeharkatzen zuten karabanetan ekartzen zituela beirakiak.
<b>hornitzaile</b>	Gogoratu berria zuen Merkatariaren <b>hornitzaileetako</b> batek basamortua zeharkatzen zuten karabanetan ekartzen zituela beirakiak.
<b>atalase</b>	<b>Atalasean</b> eseri zen ondoren, bakar-bakarrik, nargilea erretzera.
<b>liluraturik</b>	... <b>liluraturik</b> geratuko ziren gonbidatuak kikara hain eder eta baliotsuak ikustean.
<b>honela moduz</b>	—Arabiar jaio behar da ongi ulertzeko (...) Baina <b>honela moduz</b> itzuliko genuke: "Idatzirik dago"
<b>narguil</b>	Sugar gehiago jarri zituen agureak <b>narguilean</b> , eta zupada luzea egin zuen ondoren.
<b>sos</b>	Lur arrotz hartara ailegatzea, lapur batekin topo egitea eta <b>sosik</b> ere gastatu gabe artaldea bikoiztea...
<b>etxadi</b>	...baina gehiago nekatzen omen zen Tangerren, <b>etxadiren</b> batzuk haratago larru bila joan behar izaten zuenean.
<b>lehenetsi</b>	Gazte nintzela, denda hau martxan jartzeko diru pixka bat eskuratzea <b>lehenetsi</b> nuen.
<b>ahalik eta ...-en</b>	— <b>Ahalik eta</b> azkarren itzuli nahi dut nire ardiengana.
<b>barau egite</b>	Hauek dira gainerakoak: egunean bost aldiz otoi egitea, <b>barau egitea</b> Ramadan hilean, behartsuei laguntzea.
<b>bidegabe</b>	Merkataria gizakume egoskorra izan arren, ez zuen <b>bidegabe</b> jokatzeko...
<b>egoskor</b>	Merkataria gizakume <b>egoskorra</b> izan arren, ez zuen bidegabe jokatzeko...
<b>minarete</b>	Jada ez zegoen ez bazarrik, ez merkatarien arteko eztabaidarik, ez <b>minareteetara</b> igo eta abesten zuen gizonik...
<b>bazar</b>	Jada ez zegoen ez <b>bazarrik</b> , ez merkatarien arteko eztabaidarik, ez minareteetara igo eta abesten zuen gizonik...
<b>erakusleiho</b>	...mutil atzerritar bat geratu zen bere <b>erakusleihoaren</b> parean.
<b>magal</b>	...apenas geratu ziren denda bakan batzuk mendiaren <b>magalean</b> .
<b>xentimo</b>	<b>Xentimorik</b> ere ez zeukan poltsikoan, baina bazeukan fedea bizi izan.
<b>harat-honat</b>	Presarik gabe, <b>harat-honat</b> ibili zen plazan. Hasiak ziren saltzaileak beren txosnak eraikitzen, eta gozogile bati lagundu zion berarena altxatzen.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>txosna</b>	Presarik gabe, harat-honat ibili zen plazan. Hasiak ziren saltzaileak beren <b>txosnak</b> eraikitzen, eta gozogle bati lagundu zion berarena altxatzen.
<b>akiturik</b>	Eta, zeharo <b>akiturik</b> , loak hartu zuen.
<b>aneka</b>	Ez zeukan <b>anekaren</b> zuloa josteko asmorik: nahi zuten guztietan egin ahal zuten ihes harriek handik.
<b>atzeman</b>	Sartu zuen eskua zakutoan, eta harrietako bat ia <b>atzemanik</b> zeukala biak joan zitzaizkion oihalaren zulo batetik.
<b>sorterri</b>	Bitartean, azoka hutsik zegoen; eta mutila, <b>sorterri</b> urruti.
<b>saldo</b>	Gero, inurri-langile <b>saldo</b> bat bailiren, txosnak desmuntatu eta joan egin ziren.
<b>bailiren</b>	Gero, inurri-langile saldo bat <b>bailiren</b> , txosnak desmuntatu eta joan egin ziren.
<b>uzkurtu</b>	Txikiagotu egin zitzaion bihotza bat-batean, bularra <b>uzkurtu</b> balitzaio legez.
<b>zelatatu</b>	"Aski da laguna <b>zelatatzeaz</b> ", esan zion bere buruari.
<b>berekiko</b>	"Fedegabeen gauzak", esan zuen <b>berekiko</b> .
<b>tamala</b>	" <b>Tamala</b> gero nire izena ahantzi egingo duela", pentsatu zuen.
<b>gotorleku</b>	Tarifa hirixkaren gainaldean bada mairuek egindako <b>gotorleku</b> zahar bat...
<b>igurtzi</b>	Mutilari begiratu zion agureak, eta bi eskuekin <b>igurtziz</b> keinu arraro batzuk egin zitzaion buruan.
<b>isuri</b>	—Ibiltzen hasi orduko, eraman ezazu zeurekin honako koilara hau, olioia <b>isurtzen</b> utzi gabe.
<b>deus ez</b>	"Mutilak, lotsaturik, <b>deus ez</b> zuela ikusi aitortu zion.
<b>hirusta</b>	Kilkerrak, haurdunaldiak, sugandilak eta lau hostodun <b>hirustak</b> bezala.
<b>hausnartu</b>	"Ardien eta altxorraren artean erabaki beharra daukat", <b>hausnartzen</b> zuen mutilak.
<b>atxikimendu</b>	..ez zuten ulertzen artzainek beren ardienganako <b>atxikimendu</b> handia izaten zutela...
<b>solasean aritu</b>	Ia hiri osoa ere ikusten zen han goitik, baita agurearekin <b>solasean aritutako</b> plaza ere.
<b>atezu</b>	Aztoratuta zegoen, <b>atezu</b> , bai baitzekien egia zioela agureak.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>hasperen egin</b>	— Azkarrak dira ijitoak — <b>egin</b> zuen <b>hasperen</b> agureak—.
<b>pirritan joan</b>	Harri bihurtu eta <b>pirritan joan</b> zen harribitxi-bilatzailearen oinetara.
<b>uhar</b>	<b>Uharrek</b> ateratzen dituzte altxorrek lurpetik, eta uholde beroiek sartzen dituzte lur azpian.
<b>krispeta</b>	<b>Krispeta</b> -saltzaile bat seinalatu zuen agureak. Plazaren izkina batean zegoen, bere orgatxo gorriarekin.
<b>orgatxo</b>	Krispeta-saltzaile bat seinalatu zuen agureak. Plazaren izkina batean zegoen, bere <b>orgatxo</b> gorriarekin.
<b>txepel</b>	Liburua potoloa da, baina zeharo <b>txepela</b> .
<b>patu</b>	...horretaz mintzo da liburu hau ere —jarraitu zuen agureak—. Beren <b>patua</b> hautatzeko gizakien ezintasunez.
<b>txunditurik</b>	Eta guztietan <b>txunditurik</b> geratzen zen neska artzainak ardi-mozketa atzetik aurrera egin behar dela azaltzen zionean.
<b>korapilatsu</b>	Gainera, oso <b>korapilatsuak</b> ziren pertsonaien izenak.
<b>artegi</b>	Hirisarreran zeuden ardiak, lagun berri baten <b>artegian</b> .
<b>haserretu</b>	Eurek nahi bezalakoak bilakatzen ez bagara, berriz, <b>haserretu</b> egiten dira.
<b>ezjakina izan</b>	Seguru atsoa ijitoa zela. Eta zeharo <b>ezjakinak</b> dira ijitoak.
<b>zeharo</b>	Seguru atsoa ijitoa zela. Eta <b>zeharo</b> ezjakinak dira ijitoak.
<b>lantegi</b>	...amets bat izan da —esan zuen atsoak—. Interpreta dezaket, baina oso <b>lantegi</b> zaila da.
<b>aztoratu</b>	Ez zait gustatzen inork nire ardiak <b>aztoratzerik</b> ; beldurra diote jende arrotzari.
<b>amarru</b>	<b>Amarru</b> ederra, pentsatu zuen mutilak. Baina arriskatzea pentsatu zuen.
<b>aitagure</b>	Ez zuen nahi eskua dardarka hasterik eta atsoa bere izuaz ohartzetik. <b>Aitagure</b> bat errezatu zuen, isilpean.
<b>isilpean</b>	Ez zuen nahi eskua dardarka hasterik eta atsoa bere izuaz ohartzetik. Aitagure bat errezatu zuen, <b>isilpean</b> .
<b>ziztu batean</b>	<b>Ziztu batean</b> erretiratu zituen eskuak artzainak.
<b>errezel</b>	Koloretako plastikozko <b>errezel</b> batek bereizten zuen gela hura egongelatik.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>ardo zahagi</b>	Liburua trukatzerik izango zuen han, beste bat handiagoa eskuratuz; <b>ardo zahagia</b> betetzerik ere bai, edo bizarra eta ilea moztetik ere.
<b>bide berriak jorratu</b>	"Arazoa da eurak ez direla konturatzen egunero <b>bide berriak jorratzen</b> ari direla.
<b>bederen</b>	Handia zen mundua, agortezina; eta apur bat <b>bederen</b> gida zezaten utziko balie ardiei...
<b>zeruertz</b>	Gorritz tindatu zen <b>zeruertz</b> a, eta eguzkia atera zen segidan.
<b>zirauen</b>	Bizirik <b>zirauen</b> artean gogo hark...
<b>orduko</b>	—Gure soroak eta gure emakumeak <b>ikusi orduko</b> betiko hemen bizi nahi luketela esan ohi dute gizon horiek —jarraitu zuen aitak.
<b>ihardetsi</b>	...emakumeak eta lurak ezagutu nahi ditut — <b>ihardetsi</b> zion mutilak—.
<b>parte onekoa ez izan</b>	Eliza, beharbada, <b>ez zen parte onekoa</b> , astigar zuri hura barruan zuela...
<b>galda</b>	Bazekien ordu batzuk geroago, eguzki <b>galdatan</b> , beroegi egingo zuela...
<b>egunsenti</b>	...lagun izango zituen ardiak, egun guztiak aurrekoaren berdinak izan arren — ordu luzeak igaroz <b>egunsentitik</b> ilunabarrera arte—...
<b>ilunabar</b>	...lagun izango zituen ardiak, egun guztiak aurrekoaren berdinak izan arren — ordu luzeak igaroz egunsentitik <b>ilunabarrera</b> arte—...
<b>sarraskitu</b>	"Munstro bilakatu eta nire ardiak banan-banan hiltzea erabakiko banu gaur, ia artalde osoa sarraskitu arte ez lirateke ohartuko eurak" ...
<b>aitzakia</b>	Bat-bateko <b>aitzakiaren</b> bat asmatu eta erantzun gabe utzi zuen mutilak galdera.
<b>gauza izan</b>	—Ez nekien nik artzainak liburuak irakurtzeko gauza zirenik —esan zuen bere ondoan emakume ahots batek.
<b>saihestu</b>	...eta ardi mozketa bere aurrean egin zezaten nahi izaten zuen, faltsifikazioak <b>saihestearren</b> -edo.
<b>ahapeka</b>	...nire ordutegiak ere badakizkitez", esan zuen <b>ahapeka</b> .
<b>esnatu</b>	...lotan zeuden ardiak <b>esnatzeari</b> ekin nion.
<b>hunkitu</b>	Horregatik, gehien <b>hunkitu</b> zuten liburuatalak irakurtzen zizkien batzuetan...
<b>astigar</b>	Sabaia aspaldi behera etorria zen, <b>astigar</b> zuri handi bat hazi zen ...
<b>azienda</b>	Ez zen otsorik lurralde hartan, baina azienda batek ihes egin zion halako gau batean...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>islatu</b>	...nire ertzetan etzaten zen bakoitzean haren begien barrenean ikusten nuelako <b>islatua</b> neure ederrtasuna".
<b>legenda</b>	Bazuen Alkimistak Nartzisoren <b>legendaren</b> berri: egunero aintzira batean bere edertasuna behatzera joaten zen mutil ederraren istorioa.
<b>pegar</b>	...ur gezadun lakua malko gaziz betetako <b>pegarra</b> bihurtua zen.
<b>deitoragarri</b>	Lotsaturik, komentukideen begirada <b>deitoragarrien</b> zama nabaritzen zuelarik...
<b>itzel</b>	...bere barren-barreneko zerbait eskaintzeko premia <b>itzela</b> sentitzen zuen.
<b>flasko</b>	...Egintza Handia ez da etortzen beti arrautza edo likidodun <b>flasko</b> itxuraz jantzia, baina denok murgil gaitzke (...) Munduaren Ariman.
<b>murgildu</b>	...Egintza Handia ez da etortzen beti arrautza edo likidodun flasko itxuraz jantzia, baina denok <b>murgil</b> gaitzke (...) Munduaren Ariman.
<b>alkimia</b>	Bere ikasgaiak nireganatzen hasi orduko <b>Alkimia</b> ikasteari ekin nion berriro, neure kasa.
<b>lauso</b>	...zera galdetu nion, ea zergatik zen hain <b>lausoa</b> eta konplexua alkimisten hizkera.
<b>neure kasa</b>	Bere ikasgaiak nireganatzen hasi orduko Alkimia ikasteari ekin nion berriro, <b>neure kasa</b> .
<b>telepatia</b>	Halako gau batean, <b>telepatia</b> saio nekagarri baten ostean hizketan ari ginela...
<b>ahaleginak eta bi egin</b>	<b>Ahaleginak eta bi egin</b> nituen arrear, ez nuen batere emaitzarik eskuratzen.
<b>eszeptiko</b>	Nire bizitzako hurrengo sei urteak mistika-eremuko ororekiko nahiko jarrera <b>eszeptikoan</b> igaro nituen.
<b>mistika</b>	Nire bizitzako hurrengo sei urteak <b>mistika</b> -eremuko ororekiko nahiko jarrera eszeptikoan igaro nituen.
<b>zingiratsu</b>	Jokabide horrek. eta Magiaren eremu <b>zingiratsuetara</b> egin nituen joan-etorri batzuek, egia bilakatu zuten esaera zaharra...
<b>artean</b>	...70eko hamarkadaren hasiera-, eta ez zegoen <b>artean</b> argitalpen seniorik Alkimiari buruz.
<b>buru-belarri</b>	Horrenbestez, bizitza urte askoan luzatzeko gai den edariareen berri izan nuenean, hori egiteari ekin nion <b>buru-belarri</b> .
<b>sobera</b>	...hori pentsatze hutsa <b>sobera</b> erakargarria zen Magian hasi berria zen edonorentzat.
<b>nargile</b>	Atalasean eseri zen ondoren, bakarbakarrik, <b>nargilea</b> erretzera.
<b>gurtu</b>	Eta horrela, fraiderik fraide, <b>gurtu</b> zituzten denek Ama Birjina eta Jesus Haurra.